

DATORRENA

Alkaterik onena herria, edo hautetsien
jokabidea G7a kari

MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA


(Kontra)gailurra

PELLO OTXANDIANO > 9

2019ko abuztuaren 31 | VIII. urtea • 635. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



JAVIER HERNANDEZ LANDAZABAL

GASTEIZKO ARTIUM MUSEOAN IKUSGAI DAGO «GALDUAZ ETA BERRESKURATUAZ»
ERAKUSKETA. BERE OBRA BEZALA, ARTEAZ MINTZO DA GASTEIZTARRA, NOIZ ETA
BERETZAT INFLEXIO PUNTUA IZAN DAITEKEEN UNE HONETAN. > 23

Jaizki FONTANTEDA | FOKU



Manila ikusezina: milaka lagun zaborraren eta indarkeriaren artean 04

Oreka militarra hankaz gora jarri duen armamentu lehia berria 10

Txalo jotzeko moduko esfortzuak 14

Elkarrizketa: Javier Hernandez Landazabal 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:**
Alkaterik onena herria, edo hautetsien jokabidea G7a kari
- 08 **Ander Gortazar Balerdi:**
Gotortuak
- 09 **Pello Otxandiano:**
(Kontra)gailurra
- 13 **Alai Zubimendi**
- 15 **Xabier Mikel Errekondo:**
«G puntua» Biarritzen dago
- 15 **Maidier Iantzi Goienetxe:**
Uneak
- 16 **Gorka Zozia:** Damak materia iluna argitzeko deman
- 17 **Iker Barandiaran:** Jaiak bai, baina ez edonola
- 22 **Garazi Goia:** Hobeto egin dezakegu, ezta?



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Alkaterik onena herria, edo hautetsien jokabidea G7a kari

Herriko bozekin batera, lehen aldikoz, sufragio zuzenaren bidez ez bada ere, Euskal Elkargoko ordezkariak hautatuko dituzte Ipar Euskal Herriko herritarrek heldu den udaberrian. Hitzordua urrun samar dagoela onartuta ere, urte politikoaren hasiera gertu dugula, boto-ontzietara zuzenduko dira gurean begirada guztiak, hala aitortu edo ez. Azkeneko asteotan mundu mailako eta frantses Errepublikako agintariek euskal lurraldea erakusleio gisa erabili ahal izateko polizia okupazio itogarria jarri dute martxan Euskal Herrian, Bidasoko bi aldeetako herritarren eguneroko jarduerak hankaz gora jarriz eta, bide batez, demokraziaren profila botereguneen kementziaren arabera moldagarria dela berretsiz.

Goi mailako agintarien jardunek albistegiak irentsi dituzte. Salbuespenak salbuespen, beraien joan-jinak, txangoak, keinu eta hitzak jabetu dira kontakizunaz. Lehen mailan, sistemaren legitimitate hutsuneak indarkeriaren bidez estaltzeko aparteko arazorik ez duten boteredunak; azkeneko lefroan, herritarrak. Eta tartean, han nonbait, dantzan, batzuk ageriago beste batzuk kukutuago, ondoko hilabeteetan herritarren konfiantzaren bila hauteskundeei begira jarriko diren tokiko hautetsiak. Horrela adierazi edo ez, norberak bere kalkuluak eginez, oreka puntua non den atzeman nahian, asmatu nahian anfitrioi papera nola bete herritarren begi aitzinean sinesgarritasun gehiegi galdu gabe. Horretan ere, denek ez dute, alta, ez partidu bera ez lehia berdinean jokatu. Esposizio mailatik hasita, hautetsien eremuan alde handiak izan dira, baita hautu interesgarri batzuk ere, protokoloak utzitako eremu heresia izanik ere. Euskal diputatu eta senatariek, baita departamenduko buruzagiek ere, irribarretsu burutu dute Estatuko gailurretik beraientzat agindutako pape-

ra. Sinesmen osoz, prestasun osoz, anbizio osoz, Castaner Barne ministroak besapean ekarri zuen segurtasun eskema legitimatuz ikusi genituen goi bilera hasi aitzin ere. Geroztik, liluratuta jardun dute, pausoz pauso, Biarritzeko paisaia ederrak mundu zabalera zabaldu dituen ekimenaren kontalari pribilegiatuaren papera gustura hartuta.

Bide batez, hautetsi handien gorteak Michel Veunac auzapez zentristaren posizioa sendotu du. Hala ere, behin gailurreko atrezzoak desmuntatuta, bilanaren kudeaketa ez dela oso samurra aurreratu daiteke. Aldez aurretik Veunacek iragarri zituen onurak nortzuek eskuratu dituzte? Kalte-ordainen plana egikaritutako da azkenik ala euskal kostako hirian oso nabarmena den haserre baretzeko baizik ez zen iragarri finean osatuko

Zerbitzu publikoak eta laguntza sozialak murrizten diren bitartean 36,4 milioi euroko kostua izan duen gailurrak utzitako albo kalteak, dendarien artean bereziki, kutxa publikotik ordainduko dituzte

balitz denon diruarekin ordainduko litzatekeen funtsa? Baionako eta Hendaia-ko auzapezek, Jean-Rene Etchegarayk eta Kotte Ezenarro, hurrenez hurren, kalkulaturako distantzia atxiki dute. Hainbat lekukoren arabera, Castanerrek telefono elkarrizketa aise garratza ukan zuen Etchegarayk larunbatean bertan bere hirian ezarritako debeku gunean manifestari eta kazetariekin batera herritar soilak zepo batean harrapatuta zirela jakin zuten. Ezenarro, G7 EZ! plataformak eginiko lana gorai-patu ondoren, ez zen bertaratu «G7ari eginiko harrera ona» eskertzeko polizien jaunak eta Eliseoko andereak Biarritzen antolaturiko azkeneko agerraldira, gonbidapena izan arren. Udako sutea itzalita, udaberria amets. •

POBREZIA HIRIAN

Manila ikusezinean milioika pertsona bizi dira zaborraren eta indarkeriaren artean

ATZERRIA / Sara Gomez Armas (Efe)

Jayaan Cabaniogen bizi-moduak okerrera egin du azken urtean, lan egiten zuen zabortegia itxi zutenetik, zabor-olde batek 300 pertsona hil ondoren. Bere senarra drogak edukitzeagatik kartzelan da –*shab* anfetamina merkearen gramo batzuk zituen harrapatu zutenean–, eta bera bakarrik arduratu behar da hiru seme-alabez. Haiekin nekez bizi da Payatas *slum* edo txabola auzoan, Manilako ipar-ekialdeko legez kanpoko kokagune baztertua.

Zabortegiko hats toxikoek lau hilabeteko beste seme bat hil zioten, baina 37 urteko Jayaanek zaborrean bilatu eta bere amak bidaltzen dion dirua onartu beste irtenbiderik ez du. Princess, alaba txikia, elkarte erlijioso batek antolatzen duen elikatzeko programara joaten da astean lautan. Jolastu, abestu, otoitz egin, eskulana egin eta jan egiten du bertan. Oilaskoa, arraina, txerriak edo barazkiak ematen dizkiete haurrei eta janaria etxera eramaten uzten diete, senideek ere jateko zerbait izateko.

Zabortegien ondoan eraikitako Manilako auzoetan, biztanleek sarri *pagpag* zopa janenez baretzen dute gosea, hau da, zaborretako oilasko zatiez egindako zopa itxurako jakia. Bada, baldintza izugarriotan bizi dira 10.000 lagun Payatasen. Haien seme-alabak eta beste txabola auzoetakoak dira Filipinetan malnutrizioa pairatzen duten adin txikiko gehienak (haurren %20).

Munduko *slum* eremu handiena dago Manilako metropoli esparruan. Ez dago datu ofizialik, bakarrik txaboletan lau milioi pertsona bizi direla dioten kalkuluak, hiriaren po-

pulazioaren herena. Hiri garapen eredu hori Asiako hego-ekialdeko beste hiriburu handietan ere ematen da, baina Filipinak dira eskualdean ezberdintasun handienak dituen herrialdea. Populazioaren %1ak bereganatzen du nazioaren aberastasunaren erdia. Bestalde, herritarren bosten bat, 22 milioi filipinar,

Milioika pertsona bizi dira pobrezia gorrian Manilan, miseriatik ihes egiteko aukerarik gabe. Txabolaz jositako «slum» erraldoietan, zaharkitutako eraikin handietan edota hilobien artean metatzen dira milaka familia, malnutrizioaren eta indarkeriaren artean, asko zaborretik nola edo hala janaria lortzera kondenatuta.

egunean bi dolar baino gutxiagorekin bizi dira. Klase ertainekoak –egunean 15 dolar baino gehiago dutenak gastatzeko– ez dira %9,2ra iristen, oso datu baxua eskualdeko beste herrialdeen aldean: adibidez, Malaysia (%65), Thailandia (%35) edo Txina (%20). Munduko Bankuak berak emandako datuak dira.

Haurrak, atxilotuta zentro batean jaten. Ted ALJIBE



Filipinek hazkunde ekonomiko sendoa izan dute azken urteotan, 2012etik %5aren gaitetik, baina horrek ia ez du eraginik izan pobrezia-erazketan edo Jayaan edo bere auzokide Elena Valeñaren bizitzan. «Zaborrean, edozein tokitan bilatzen dugu janaria. Ez dago guretzat lanik», azaldu du, etsita, Elenak. Senarraren-gandik bananduta, dituen zazpi seme-alabetatik berarekin bizi diren bostak elikatzeko borrokatzen du egunero. Txabola txiki batean bizi da, zabor poltsen artean koltxoi bat eta gazezko su txiki baterako baino tokirik ez duena.

Zabortegian bildu duenarekin oraindik ez du lortu Elenak asteko arrokerako behar duen dirua. Ondorioz, bere 22 urteko seme Szedricek, arratsaldez ere zaborra miatzen jarraitu beharko du. Zorionez, Sheenak, 5 urtekoak, ondo jan du mojekin.

2017an zabortegia hamar kilometrotara eramane zuten, baina oraindik ere zabor-kamioek auzoa zeharkatzen dute. Pasatzen direnean, auzokideak gero etxean aztertzen dituzten poltsak betetzen ahalgintzen dira; berrerabilgarria dena banatu eta garbitu egiten dute. Plastikoz eta lataz bi zaku betetzea lortzen badute, 1,5 euro ordaintzen diete.

«Zabortegirik gabe bizitza zailagoa da guretzat», onartu du Jayaanek. Zabortegiarekin ez zuten bakarrik dirua lortzen, baita askotariko tresna eta altzariak ere, adibidez sofa edo mahaia zaharkituak edo armairu gisa erabiltzeko moduko hozkailu hondatuak.

Apaingarri bilduma benetan bitxiak ere eskuratzen dituzte auzokideek zabortegitik bertatik: portzelanaz egindako elefanteak, plastikozko loreon-

tziak, jada ez dabiltzan erlojuak, pelutxe piloak...

MISERIA NAGUSI HIRIETAN

Filipinetako 106 milioi biztanleetatik %21 dira pobreak, herrialdeko Estatistika Institutu Nazionalak 2018an emandako datuen arabera. Bada, hirietan bizi diren behartsuak dira pobreen artean pobreenak.

Politikoez ahaztuta, erabat ikusezinak dira egurrezko, aluminiozko edo kartoizko txabolak ahal duten tokietan altxatzen dituzten herritarrok, zubien edo autobideen pean, trenbideen ondoan, ibai ertzeetan, baita zabor artean ere. Tifoiak, uholdeen edo lurrikaren oldarraldiak beste inork baino gehiago sufritzen dituzte eta, ondorioz, maiz zerotik hasi beharra izaten dute ebakuazio guneetan.

Rodrigo Duterteko Gobernua, legealdiaren bukaeran, 2022an, pobrezia tasa %14ra jaitsi nahi du. Horrek esan nahi du pobreziatik sei milioi filipinar ateratzea. Pobrezia-aren Aurkako Batzorde Nazionalaren lanak landa eremuetan pilatzen dira, bertan bizi baitira pobreen hiru laurdenak. Hala ere, 2019-2023 aldirako lan plangintzan onartzen duenez, «hirietako pobrezia erakusten ditu desberdintasunen irudi krudelenak».

«*Slum*-etako pobrezia bere horretan mantentzea Filipinetan nagusi den ustelkeriaren eta politikoez egiten duten baliabideen erabilera okerraren ondorioa da», salatu du Carlos Conde Human Rights Watch erakundeak Filipinetan duen ordezkariak.

Giza eskubideen urraketa eta pobreen «biktimizazio bikoitza» premiazko arazoak dira. Izan ere, oinarritzko beharrak betetzerik ez izatez gain,



Haurrak Manilako auzo batean, desagertutako ume baten irudia duen kartelaren azpian.
Noel CELIS

beste arazo larri bat ere bizi dute pobreek: gizarteak baztertu egiten ditu txiro izateagatik, lana ez izateagatik, hezkuntzara sarrera ez izateagatik edo talde kriminalek agintzen duten auzoetan bizitzeagatik.

200.000 LAGUN MILIA KARRATUKO

Manilako ipar-mendebaldean, aberatsen eta pobreen arteko muga zehazten duen Pasig ibaiaren beste aldean, Tondo barrutia dago, 700.000 biztanle ingururekin. Munduko populazio dentsitate handieneko esparrua da, 80.000 bizilagun inguru milia karratuko; toki batzuetan 200.000 ere metatzen dira.

Tondon, zabortezi bezala erabiltzen zen menditxo batean, XX. mendeko 50eko hamarkadan sortu zen Smokey Mountain («Kea Darion Mendia»), Manilako *slum* ezagunena eta hirian nagusi zen miseriaren ikurra. Landa ere-

muak uzten zituzten milaka filipinarren etxea izan zen hamarkadetan zehar, 1995ean zabortezi itxi zuten arte.

Jannet Katipunan, 40 urtekoa, 1990an joan zen bizitzera bere familiarekin barrutian *tenemen* gisa ezagutzen diren 27 eraikinetako batera; Gobernuak 80ko hamarkadan eraiki zituen etxebizitza sozial xumeok Smokey Mountainen bizi zirenentzako. «Etorri ginenean ez zegoen ez urik ezta argi-indarrik ere. Gero, pixkanaka-pixkanaka gauzak lortzen hasi ginen. Toki atsegina ere bihurtu zen. Baina egun eraikinak erabat hondatuta daude. Euria egiten duenean ura sartzen da eta zinkinkeria da nagusi», azaldu du.

Hondatutako fatxadak, itoginak, apurtutako eskailerak, herdoildutako barandak, gainezka dauden estolda-zuloak... ohikoak dira egun *tenemen* eraikinotan. Bakoitzean 600

familia inguru bizi dira, hasiera batean 200 familia hartzeko sortu baziren ere. Teilatuetan ere txabolak altxatu dituzte eta hasierako apartamentuak handitu egin dituzte erdiko patioari lekua kenduz.

Jannet apartamentu txiki batean bizi da. Lehen bera, hiru anai-arreba eta gurasoak ziren, baina egun hemezortzi pertsona bizi dira bertan. Ahizpa nagusiak, 41 urtekoak, hamar seme-alaba ditu, eta berriro dago haurdun. Bi ahizpak, euren senar eta haurrekin batera, jatorrizko etxebizitzan bizi dira. Gurasoak eta eta anaia teilatuan eraikitako etxola batean bizi dira.

Jannet eta ahizpa garbitzailerak dira; senarrak, kamioi gidariak; azkenik, anaiak olio salerosketan egiten du lan. Guztien artean jateko eta txikiak ikasteko nahiko diru biltzen dute behintzat. Ez da gutxi, Munduko Bankuaren

arabera Filipinetako etxe po-
breenetan soilik %31k amai-
tzen dutelako bigarren hez-
kuntza eta %2k goi mailako
ikasketak. Axellow Aligado, 18
urteko Jenneten iloba, da ikas-
ketetan aurrera egin duen gu-
txi horietako bat. Unibertsita-
tera joatea lortu duen lehena
da familian; oraingoz, hori bai,
Ekonomia karrerako seihileko
bat baino ez du egin, ezin izan
duelako ordaindu hurrengo-
ren matrikulak balio dituen
12.000 pesoak (200 euro). «Fa-
miliarentzako etxe handiagoa
erostea gustatuko litzaidake»,
onartu du Axellowek. Kontable
bilakatu eta *slum*-a atzean uz-
tea du amets.

Baina horrelako auzo batean
jaioz gero, ia ez dago aukera-
rik. Estatistika ofizialen arabe-
ra, 3,8 milioi haurrek ez dute
hezkuntzarik jasotzen. Ezkon-
tza goiztiarrak eta familia ara-
zoak izaten dira eskola uzteko
arrazoia kasuen %42an (%60
nesken artean), eta ikasketak
ordaintzeko diru falta %20an.

Arazoak arazo, populazioa-
ren hazkundea ez da geratzen.
Katolizismoaren pisuaren, se-
xu heziketa ezaren, antisorgai-
luen gaineko tabuaren eta
abortuaren jazarpenaren era-
ginez, Asian ugalkortasun
handieneko herrien artean
daude Filipinak. NBERen ara-
bera, emakume bakoitzak hiru
seme-alaba izaten ditu batez
beste, baina, errealitateak era-
kusten duenez, auzune pobre-
netan arrunta da hamar se-
me-alaba edo gehiago izatea.

Gobernuaren arabera, 2,5 mi-
lioio lagun mugituko dira hiribu-
rura lan bila datozen hiru urtee-
tan. Arrazoizko prezioa duten
etxebizitza duinen faltagatik,
gehienek *slum*-etan amaituko
dute. Pentsa, Smokey Mountain
zegoen menditxoan bertan ere
hasi dira kokatzen batzuk, egun



Goian, Manilako auzo
batean izandako tiroketa
batean hildakoen
gorpuak.
Noel CELIS

zaborrik ez dagoen eta gunea
oraindik toxikoa den arren. Ho-
rietako bat da Michael Kucipac,
36 urtekoa. Emaztearekin eta
hiru seme-alabekin egurrezko
txabola xume batean bizi da,
urik gabe eta legez kanpo sare
elektrikoari konektatuta. «Lan
hobe baten bila, etorkizun ho-
be baten bila etorri nintzen
Manilara», onartu du.

INDARKERIA ETA INPUNITATEA

Indarkeria nagusi da auzuneo-
tan, bereziki iluntzea helduean.
2016 eta 2018 bitartean, Duter-

**Munduko txabola auzo pilaketa handiena
ematen da Manilako metropolian. Ez dago datu
ofizialik, baina txaboletan lau milioi pertsona
bizi direla kalkulatzen da. Biztanleen herena**

**Politikoek ahaztuta, iritzi publikoarentzat
gutziz ikusezin, egurrezko edo kartoizko
txabolak altxatzen dituzte ahal bezala,
zubipean, trenbideen ondoan edo zabor artean**

teren agintaldiaren lehen ur-
teetan, delitu txikien kopurua
jaitsi egin zen, baina hilketak
%80 igo ziren, Poliziaren bera-
ren datuen arabera. Askok
“drogen aurkako gerra” pole-
mikoak sortu duen inpunita-
teari egozten diote igoera hori.

Tondo eta Binondoren mu-
gan, duela mendi erdi Delpan
sortu zen, erortzeaz daudela
diruditen etxez osatutako au-
zoa. “Drogen aurkako gerra-
ren” hasieran, bertako kaleak
exekuzio estrajudizialen ager-
toki izan ziren. Sarri errugabe-
enak, biktimen abokatuek eta
giza eskubideen taldeek frogatu
duten. Kanpaina beldur-
garria hasi zenetik, 27.000
pertsona baino gehiago hil di-
tuzte, Nazio Batuen arabera.
Poliziak, berriz, 5.000 hildako
inguru baino ez ditu aitortzen.

Delpan bizi da duela 35 urte
Benvenuto Razon, zazpi seme-
alaben aita eta hogeitaz baten ai-
tona erretiratua. Semeek lan

prekarioak bata besteari
atzean pilotzen dituzte. Emaz-
teak etxean prestatutako jana-
ria saltzen du kalean. «Ni mer-
katura joaten naiz erosketak
egitera», azaldu du. Delpan be-
re familiarentzako «toki segu-
raria» dela dio, prentsan auzoa
soilik delitu eta droga auzie-
kin lotuta agertzen bada ere.

Amelyn Rolojok ere gustuko
du Delpan, nahiz eta semeak
kaleak bakarrik ibiltzearen
beldur dela onartu. Senarrak
kamioilari gisa lan egiten du
eta egunean 400 peso inguru
(7 euro) irabazten ditu. Auzoko
errealitatea kontuan izanda,
dirutza da. «Manilan askoz
errazagoa da dirua egitea gure
herrian baino. Hemen familia
ondo dago, ez gara gose behin-
tzat. Egunean hiru otordu egi-
ten ditugu», azaldu du.

ERAGINDAKO SUTEEN BELDUR


Manilako metropolia osatzen
duten hamasei hirietako bat

da Quezon. Bertan, etxe-orrazten artean, San Roque dago. 5.000 familia inguru bizi dira legez kanpoko kokagune horretan; 20.000 izatera ere iritsi ziren.

Ayala Land enpresak, Filipinetako familia aberatsenetariko baten esku den enpresa eraikitzaile erraldoia, San Roque kokagunearen jabetza aldarrikatzen du. Auzokideak kaleratu eta bertan barruti finantzario moderno bat eraikitzea du xede. 2010ean hasi ziren eraispen masiboak. Gobernuak bezala, Ayala Land enpresak ere ez dio adierazpenik egin nahi izan Eferi bere aurkako salaketan inguruan.

«Ez gara bakarrik eraispenen beldur. Suteek ere kezkatzen gaituzte. Bederatzi aldiz saiatu dira gure etxeak erretzen», salatu du Estrelieta Bagasbasek. 30 urtez etxe izan duen kokagunea salbatzeko borrokan ari diren San Roqueko auzokideen burua da. 16 urterekin iritsi zen Manilara, etxe langile moduan aritzeko; bere soldata egunean janari plater bat jasotzea zen. Gero San Roquera joan eta ezkondu egin zen. Merkatuetan saltzen zituen barazkiak lantzen gogor egiten zuen lan, senarraren kolpeak jasaten zituen bitartean. Kaleko liskar batean hil zen.

Alargun izanik, 1988an atzerrian bizimodua ateratzen saiatu zen Estrelieta, txabola auzoetako bizilagun askok egiten duten bezala. Itzuli zenean etxean egindako janaria saltzeari ekin zion. Arroz pastela zen bere berezitasuna. «500 peso (8 euro) irabazten nituen egunean. Garai zoriontsuak izan ziren, baina eraispenak hastean dena okertu zen». Izan ere, Estrelieta bezeroak galtzen hasi zen San Roqueko komunitatea txikitu ahala.



Gazte baten silueta,
Manilako eraikinen
aurrean.
Noel CELIS

Orain janaria prestatzeari utzi dio artrosia dela-eta.

Federico Indicio auzokideak, 50 urtekoa, guztiz etsita ikusi zuen otsailean suak bere etxea nola irensten zuen. «Bizi izan dudun gauzarik mingarriena izan zen, familia egoera horretan ikustea izugarria izan zen», azaldu du. «Ez zen sutik ezer salbatu, soinean generamana bakarrik», gogoratu du.

Orain kale gorrian bizi da, emaztearekin, lau seme-alabekin eta lau bilobekin, etxea izan zenaren errautsen gainean. Ez du ostaturik onartu nahi, presioari amore eman zioten auzokideak hiritik kanpo eraman zituztelako, «lanik ez den beste probintzia batera». Asko itzuli egin dira jada.

Suteak, baina, ez dira San Roqueko kontua soilik. 2018an bakarrik, hiriburuan 4.700 izan ziren, Suen Kontrako Bulegoaren arabera. Horietako asko eta asko hedapen urba-

nistikoak mehatxatutako auzuneetan gertatu ziren ziren.

HILDAKO ARTEAN JAIO ETA BIZI

Filipinetako hiriburu gainpopulatu eta masifikatuan, bizitzeko gune bat lortzeko borroka latza da. Milaka familiak hilerrietako mausoleoen artean aurkitu dute etxea. Michaela Sipalay duela 15 urtetik bizi da Pasayko hilerrian, hiriaren hegoaldean. Bere lana etxebizitza dituen bost horma-hilobiak garbitzea da. Bakoitza garbitzeagatik hilean 50 peso (0,85 euro) irabazten ditu.

Hilobi handienaren gainean egurrezko txabola bat eraiki du Michaelaren familiak. Bertan egiten du lo 5 urteko alabarakin. Luxu bakarrak telebista zahar bat eta haizagailu bat dira. Desgaitasun intelektuala duen 12 urteko beste alabak eta 70 urteko amak plastikozko olanez ohe bihurtutako ehorztokietan egiten dute lo.

«Bizitza gogorra da hemen. Gauez leku arriskutsua da, jende arriskutsua sartu-irtenean ibiltzen da. Droga kontuetan aritzen dira», azaldu du Michaelak. Hilerriko hormak inguratzen dituen errepidean amak biltzen dituen limosnei esker bizirauten dute. «Gaur 200 peso (3,5 euro) lortu ditut. Beste egun batzuetan gutxiago izaten da. Eta noiz edo noiz ogia edo freskagarriak ematen dizkirate», adierazi du Asuncione. Bi makuluren laguntza behar du ibiltzeko.

Duela urte batzuk ama-alabak «apartamentu polit batean» bizi ziren, alokairuan, hilerrietik gertu. Baina Micaelaren aita, familiaren sostengua, bat-batean hil zenetik gauzak okertu egin ziren. 24 urterekin ikasketak utzi behar izan zituen eta hilerriera joan beharra izan zuten ama-alabek.

Eguna argitzearekin bat, ezin negona zabaldu da hilerrian. Goizaldean auzokide bat hil dute. Drogekin zerikusia duen mendekuzko hilketa bat izan dela uste dute denek. Dozenaka auzokide gerturatu dira hiletaren gunera; gorpua altxatzeko Poliziaren diligentziak jarraitzen ari dira. Biktimaren neska-laguna ospitalean da, bera ere zauritu baitute tiroz.

«Carla eta Mac-Mac dira. Nire lagunak», adierazi du Joan Cagustanek, hilerrian bertan jaioa orain dela 26 urte. Bere senide eta ezagun guztiak hilerrian bizi dira. Bera eta 9, 6 eta 2 urteko seme-alabak Joaneke zaintzen dituen lau hilobietan bizi dira. Mutil-laguna eta aita kartzelan ditu duela hiru hilabetetik, drogak izateagatik. «Shabu-arekin harrapatu zituzten. Kontsumitzaileak dira, baina ez trafikanteak», dio Joanak, berdez tindatutako ilea orrazten duen bitartean.



Ander Gortazar Balerdi - @derzu_uzala
Arkitektoa

Gotortuak

G7koen Biarritzeko goi bilerak Zygmunt Baumanen «Bizitza likidoa» irakurtzen harra-patu nau, non atal bat eskaintzen dien hiriari,

beldurrari eta segurtasunari. Aipu batekin hasten da: «Erosotasun existentzialaren faltan, gaur egun segurtasunarekin edo haren imitazio batekin konformatzen gara».

Progresoaren ideiaeren errepasoa egiten du Baumanek, konstatatuz optimismo erradikalaren adierazpen goren zena ia-ia kontrakoa bilakatu dela, alegia, itxaropen ezaren, fatalismoaren, ikur. Aldaketen erritmo biziaren bertigoak jota, progresoa beldurra sorrarazten digu: izua hurkoari, izua arrotzari, izua klimari, izua ekonomiari, izua etor daitekeenari. Eta hiria gizartearen emaitza fisikoa den heinean, beldur horiek guztiek badute euren itzulpen urbanoa, forma ezberdinak hartzen dituen.

Hirietan gero eta gehiago ikusten diren SUV (Sport Utility Vehicle) motako ibilgailu todoterrenoak aipatzen ditu Baumanek segurtasun indibidualaren ikur garaikide moduan, kanpoko arriskuez babesten gaituzten «defentsa-kapsulak».

Hor ditugu urbanizazio itxiak ere, *gated community* ("komunitate hesituak") literatura akademikoan, non garrantzitsuena ez den *community*, baizik eta *gated*. Geltokietan tornuak zeharkatu behar ditugu "kanpotik" "barrura" sartzeko, oinezko gune nagusietan bolardoak edo trabagarriak saihestu behar ditugun bitartean. Txinan bezala, aurpegia ezagutzeko teknologiadun kameratara ohituko gara (jada ohitu ez bagara), eta puntadun zutoinak jarriko ditugu arku-

peetako zoko-mokoetan, etxerik gabekoek bertan lorik egin ezin izan dezaten.

Hirietan jende ezberdina bizi da elkarren ondoan, soinez soin, eta arrotzen kontzentrazio horrek badu puntu inprebisibile bat, espazio publikoak berezkoa duena. Baumanek ekuazio berean lotzen ditu denak: espazio publikoak aniztasuna esan nahi du, aniztasuna inprebisiblea da, eta inprebisibilitateak beti izango du arrisku puntu bat, hondar-arriskua besterik ez bada ere.

Nan Ellinek dio hiriak sortzearen arrazoi nagusia arriskutik babestea zela (horra hor harresiak), baina azken mendean buelta eman zaiola pertzepzio horri, arriskuak hiriaren kanpoan egotetik hiriaren bihotzean egotera igaro balira bezala. Beldurraren arkitektura gero eta agerikoagoa da, eta pixkanaka, arrisku-pertzepzioak aise gainditu

ditu aniztasunarena eta inprebisibilitatearena.

Hiri gotortuez hitz egiten dute Baumanek eta Ellinek; bai eta Harveyk, Smithek eta Davisek ere. Le-ro hauek idatzi bitartean, hala dago Biarritz, gotortua. Akreditatuek soilik dute baimendua sarrera; itxita daude tren geltokiak, aireportua eta hainbat errepide; itsasoa zatikatua: "debekatua", "mugatua", "kontrolatua". Hainbat autobus linea etenda, poliziak ia erabat hustu du Baiona erdigunea; hesiak zubietan, negarra eragiteko gasa eta ur kanoikadak. G7koen bikoteek (Merkelenak salbu) Ezpeleta idilikoa bisitatu dute segurtasun amerikarrak babesturik: pilota-partida eta txokolate eta piper-dastatzea. Eta zirrikituak ere badiren seinale, Bizi! mugimenduaren banderola bat ikusi dugu fatxada batetik zintzilik: «*Macron champion du climat blabla*». •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

(Kontra)gailurra

Gauzak ez dira berdin bizi oporretan zaude-nean, deliberatuki, behar eta merezi duzulakoan, egunerokotasunetik aldentzen zarenean. Egun gutxi barru berriz ere harrapatuko zaituela badakizun egunero-kotasun politikoari bizkarra emateak plazer moduko bat ematen du. Erritmo frenetikoari “jango nauzu berriro ere, baina gaur ez!” esan ahal izatea, eta norberari eta ingurukoei denbora gehiago eskaini ahal izatea garaipen txiki bat da gaurko munduan. Twitter itzaltzen jakin behar horretarako. Bide batez, geroz eta argiago dut sare sozialen bidezko harreman-molde hauek, egungo gizartean nagusi direnak, gure kalterako baino ez direla.

Bukatu da G7a, joan dira agintariak. Ikusi ditut eztabaida sutsu batzuk euskal txiosferan. Bada penatuta dagoenik G7a baldintzatzea lortu ez delako. Galdera litzateke G7a baldintzatzerik ote zegoen, edo, are gehiago, G7a baldintzatzeak zer esan nahi ote duen. Denok dakigunez G7koek ez baitute erabakiak hartzeko Biarritzeko hotel baten beharrik. Beraz, agian, haserrea nahi beste adierazi ezinak haserretzen ditu, batez ere; iraganeko kontragailur batzuetan egon den erantzun mota eman ez izanak, alegia.

Hogei urte pasa dira Seattleko kontragailurretik hona. Globalizazioaren kontrako mugimenduak protesta molde era guztietakoak erabili ditu harrezkero egon diren gailur ezberdinetan, eta hogei urteotan izugarritzko atzerapausoak eman dira demokraziaren eta askatasunen ikuspegitik. Gehiago kezkatu beharko gintuzke ezkerren panorama orokorrak: hamarnaka mila etorkin Mediterraneoan itota, krisi klimatikoa bertan, autoritarismoaren gorakada... eta European ez dago ordena alternatibo baten oinarriak jartzeko gai den ezkerrik.

Breakthrough Klimaren Leheneratzerako Australiako Zentroak maiatzean publikatu zuen “Klimarekin lotutako segurtasun arrisku existentziala: agertoki hipotetiko baten analisisa” dokumentuak adierazten duenez,

hamar urte ditugu krisi klimatikoaren aurrean erreakzionatzeko. Mende honetako hurrengo hamarraldia hil ala bizikoa izango da. Testuinguru historiko oso berezian aurkitzen gara, beraz. Kapitalismoaren antagonismoak muturrekoak bilakatu eta gizadi osoari eragingo dioten garaian. Egoera katastrofikoa da, edo oso hurbil dago hala izatetik.

Gizadiaren historian momentu singularra da honako hau. Arriskutsua eta beldurgarria bai, baina bere baitan esperantzaren hazia ere ekar dezakeena. Inoiz ez baita hain agerikoa izan hainbeste jenderen begietara, datozen urteetan izango den gisan, kapitalismoari errotik kontrajartzen zaion ordena baten beharra. Ordena berri horrek ezin lezake itxaron gainera: erreakzionatzeak sakoneko aldaketak egitea esan nahi baitu hondamendiari iskin egin nahi bazaio. Hortxe ezkerren aukerak.

Agian, garaia da kontragailurrak egiteari utzi eta gailurrak egiten hasteko. Boterea eskuratu dezakegula sinisteko eta garai honek eskatzen duen neurria emateko

Agian, garaia da kontragailurrak egiteari utzi eta gailurrak egiten hasteko. Boterea eskuratu dezakegula sinisteko eta garai historiko honek eskatzen duen neurria emateko. Bestela, gureak (denonak) egin du. Uste dut Biarritzeko kontragailurraren intuizioak hortik joan direla: alternatibak erakusteko saiakera egin, konplizitateak josi eta ondoko hilabeteetarako aukerak erein, euskal eskala eraldaketa eskala gisa marraztu... Bere txikitasunean bai, ahal izan den moduan bai, eta herri gisa ditugun ahalmenetatik urrun, hori ere bai.

Iraultzaile on gehienok oporretan egon garen bitartean, birra hotz batekin itsasoari begira, beste jende bat (ez hain iraultzailea) lanean egon da. Iraultzailea ere bada lan egiten duen jende zintzoa zaintzea. Beste baterako utziko dut norbera egiteko prest ez dagoena besteei eskatze hori. •

ARMA HIPERSONIKOAK

Munduko oreka militarra hankaz gora jarri duen armamentu lehia berria

Nazio, estatu, edo hauen koalizioek gerrara jo duten bakoitzean abiadura beti izan da gakoa, funtsezko funtsaren funtsa, batez ere borrokaldien hasieran. Indarren kontzentrazio eta erabilera azkar batek etsaia aise menderatu dezake. Eta, horrela, higadura gudu luze eta odoltsua ekidin daiteke. Hori egin zuten alemanek Bigarren Mundu Gerran beren *Blitzkrieg* edo tximista bezain lasterra zen gerran; hori egin zuten AEBek Iraken kontrako 2003ko gerran beren "*shock and awe*" estrategiarekin, lehen erasoetatik kommozioa eta ikara hedatzea xede zuena.

Abiadura beti. Abiadura da gakoa, baita eraso eta disuasio nuklearraren ekuazioan ere. 1950eko hamarkadan garatzen hasi ziren kontinentearteko misil balistikoek minutu eskas batzuetara murrizten dutenez misilak jaurtitzeko eta munduko beste puntan dagoen herrialdearen suntsiketa katas-trofikoa eragiteko erabakia, arma nuklearrak dituzten estatuek gogor lan egin dute jaurtiketak lehen unetik detektatu eta suntsiketa gertatu baino lehen kontraerasoa jotzeko teknologia.

Abiadurak, gaur egun ere, segitzen du borrokarako eta disuasiorako kalkulu denak hankaz gora jartzeko ahalmena izaten. Eta, oso bereziki, soinuaren abiadura baino bost edo hamar aldiz azkarrago doazen arma hipersonikoak produzitzen eta hedatzen hasi direnetik. Errusia, Txina, AEBak, Frantzia, Australia... denak ari dira arma mota hauek probatzen, beren disuasio nuklearra

 **ZIENTZIA /** Mikel Zubimendi Berastegi

Soinuaren abiadura baino 15 aldiz azkarrago joan daitezke. Geldiezinak dira, eraso jotzeko pentsatuak daude, suntsipen ahalmen izugarria dute eta armagintza industriaren «izar» berriak dira. Ekuazio militarren mundu orekak hautsi dituzte, eta gero eta herrialde gehiago ari dira lehiatzen abiadura handiko norgehiagoka honetan.

eta aurrez aurreko borrokarako ahalmena indartzeko helburua gidari.

Gaiaz gehiegi hitz egin gabe, isil-isilean, abiadura ardatz duen norgehiagoka berria abian dago. Erlatiboki sinpleak diren armak dira, detektatzeko eta geldiarazteko inposibleak, hegazkin ontzi eta bestelako gerraontziak erabat zaharkituak utziko dituztenak. Indus-



AEBak garatzen ari diren arma hipersonikoen errepresentazio bat: «Waverider», Mach 14ko abiaduran bidaiatzen den planeatzeko ibilgailua. Izena bere talka uhinak baliatuz goratzeko eta gidatzeko ahalmenetik datorkio.
GAUR8

tria militarren "izar" berria dira, hain azkar eta maniobragarriak, ezen, haien aurrean, egun existitzen diren misilen kontrako defentsa sistemek ezin dute erreakzionatu ere egin. Hain boteretsuak, ezen hilgarriak izateko ez dute behar lehergairik eramatea ere.

ABIADURA HANDIKO LASTERKETA

Soinuaren abiadura soinu uhinek denboran zehar egiten duten distantziaren neurria da. Aire lehorrean eta 20 °C-ko tenperaturan, soinuaren abiadura 343 m/s-koa da (1.235 km/h-koa). Hegazkin, suziri edo misil batek abiadura hori (Mach 1) hartzean, soinu langara iritsi dela esaten da. Jada badago supersonikoak diren hegazkin eta misil sorta zabal bat, 1.235 km/h edo Mach 1 abiaduran bidaiatzen dutenak. Baina hipersonikoa izateak hiru, lau, hamar aldiz azkarragoak diren abiadura hartzen dutela esan nahi du. Eta horrek, abiadura horiekin, fenomeno fisiko oso partikularrak sortzen ditu.

Demagun, adibidez, Mach 5-ean bidaiatzen den misil hipersonikoa, hots, orduko sei mila kilometrora doana. Misil horrek, izango lukeen energia zinetikoagatik bakarrik, helburuaren kontra jotzean 300 eta 400 tona dinamitaren pareko leherketa sortuko luke. Eta ez da arma kontuetan aditua izan behar irudikatzeko zer gertatuko litzaiokeen hegazkin ontzi edo tanke bati: berehala urperatu edo baporatuko lituzke. Eta hori lortzeko, aski da hiru metro eskaseko eta 300 kiloko misil bat.

Abiadura handiko lasterketa honetan, Errusia eta bere bazkide teknologikoak, bereziki India, oso aurreratuta daude. Duela urtebete pasa misil hi-



Arrakastatsua izan zen proba batean, Kinzhai misil hipersoniko taktikoa eramaten duen Mig 31 hegazkin militar errusiar baten irudia.
GAUR8

personiko familia berri bat – hegazkin batetik jaurti daitezkeen Kinzhai (daga) familiakoa – probatu zuten. Arrakastatsua izan zen eta Moskuk, berehala, Kinzhai familiako itsas modeloa –Zircon– bere gerraontzietan instalatzen hasiko zela iragarri zuen. Misil hipersoniko hauek 800 kilometroko erradio baterako prestatuak daude, arma taktikoak dira, eskualde mailako gerretan erabiltzeko.

Baina Errusiak beste sistema bat ere oso aurreratua du,

Avangard izenekoa, teknologia berriaren paradigma eraldatu duena. Funtsean, misil balistiko batek atmosferaren mugaraino eramaten duen arma hipersonikoa da, karga nuklearra eramateko gai dena. Gero, hantatik goitik, misilen kontrako defentsa sistemak iristen ez diren altueratik, misil balistiko-tik askatu ondoren bere helbururaino 12.000 kilometro orduko abiaduran erortzen da, maniobra gaitasun ikaragarritz eta gelditua izateko inongo denborarik eman gabe.

Gerran abiadura beti da funtsezkoa. Indarren kontzentrazio eta erabilera azkarrak higadura gudu luzea ekidin dezake. Beti da gakoa, baita eraso eta disuasio nuklearraren ekuazioan ere


Orduko sei mila kilometrora doan misil hipersonikoak, energia zinetikoarekin bakarrik, xedearen kontra jotzean 400 tona dinamitaren pareko leherketa sortuko luke

Baina armok produzitzeko arazo handiena abiadura bera da, beren karkasetan ez dutelako inperfekzio txiki-txikiena ere barkatzen.

ABIADURA BERTUTE ETA ARAZO

Abiadura zenbat eta gehiago handitu, orduan eta txikiagoa da karenajearen tolerantzia marjina. Hortaz, 12.000 kilometro orduko abiaduran bidaiatzea nahi den objektu bat eraiki nahi bada, paradigma aldatu behar da, nahitaez.

Horregatik, arma hipersonikoen garapen teknologikorako nahitaezkoak dira material zeramiko, karbono zuntz eta nikelezko eta kromozko superaleazioak. Izan ere, material horiekin lor daiteke azaleraren perfekzio ia erabatekoa, misila suntsituko luketen bibrazioak ekiditea, abiadura horietan aireak sortutako ikaragarritzko marruskadurak bestelako materialak erre egiten dituelako.



Behin arazook gaindituta, arma "bikain" bat lortzen da. Taimainako abiaduran doan objektu bat detektatzea ia ezinezkoa da egun dauden teknologientzako, eta detektatuz gero, oso zaila da aurreikustea zein izan daitekeen bere helburua. Ze, misil balistiko batekin 80.000 metroraingotako arma hipersonikoa, handik behe-
ra "eror" daiteke, gero eta azkarrago, eta bere norabidean egindako zuzenketa txiki-txiki batek hiri batean edo bestean kolpatzea suposa lezake.

Begiak itxi eta irudikatu daiteke gisako arma bati, bere energia zinetikorekin lortzen duen suntsiketa ahalmenaz gain, lehergai karga bat gehituz gero izan dezakeen suntsipen ahalmen ikaragarria. Are, egungo disuasio eta ikara atomikoaren oreka denak hankaz gora bota ditzake, bere helburura iristen dagoela, geldiarazteko aukerarik gabe, arma nuklearra eraman dezaketelako.

Beraz, arma hipersonikoak garatu eta hedatzeko presa ho-

nek, beren erabilera posibleen eta inpaktu estrategikoen gaineko hausnarketa egin gabe, arriskutsua, oso arriskutsua izan daitekeen norgehiagoka berrian kokatzen gaitu. Publiko orokorraren arreta berezia eskatzen duena.

OREKA GUZTIAK HANKAZ GORA

Arma asko erabil daitezke erasorako eta defentsarako helburuekin. Baina arma hipersonikoak, bereziki eskualde zehatz bateko gerretan erabiltzekoak direnak, taktikoak alegia, funtsean erasorako pentsatuak daude, balio handiko jopuntuak suntsitzeko. Eta honek bi mehatxu nabarmentzen ditu: krisi txiki batetik erabateko gerra batera jauzi egiteko arriskua eta gerra konbentzionaletik nuklearrera jauzi egitea.

Eta arriskuok ez dira irudikatuak. Berriki, abuztuaren 8an hain zuzen, arma hipersonikoen probetarako Errusiak duen Nionoksako gunean istripu larria gertatu zen, ia sekretupe-

Arma hipersonikoek erantzun oso azkarra bermatzen dute, abiadura eta maniobrarako gaitasun ikaragarri handia daukate, eta haiek aurkitzea, haien arrastoa segitzea edota suntsitzea are zailagoa da.
GAURB

Arma hipersonikoak erasorako dira, balio handiko jopuntuak suntsitzeko. Krisi txikia erabateko eta gerra konbentzionala nuklear bihurtzeko arriskua handitzen du horrek

Detektatzea ia ezinezkoa da. Detektatuz gero, bere helburua aurreikustea ere bai. Norabidean egiten zaion zuzenketa txiki-txiki batek hiri batean edo bestean kolpatzea dakarrelako

an gorde zena. Erregai nuklearra zerabilen misila probatzen ari ziren bost zientzialari eta bi militar hiltzeaz gain, irradiazioak zauritu dezente utzi eta isotopo erreaktiboak askatu ziren atmosferara.

Baina, zoritxarrez, hobeto edo okerrago baina funtzionatzen zuen misil balistikoen inguruan Errusiak eta AEBak sinatutako akordioak nahitara hausten ari diren honetan, norgehiagoka hipersonikoa areagotzen eta nuklearizatzen ari da. Gero eta herrialde gehiago dira lehiakide, gero eta teknologia beldurgarriagoak ari dira garatzen, eta, ondo-

rioz, gero eta ezegonkorragoa da segurtasun globala bermatzeko arkitektura.

Arma hipersonikook orain arte ezagutu diren segurtasun oreka gehienak, guztiak ez esateagatik, hausten ari dira. Eskualde mailan eta maila globalen segurtasuna mantentzeko kostuak handitzen doaz eten-gabe, etorkizun hurbil batean gatazka hipersonikoak izateko arriskua handitzen doan abiadura berean.

Horregatik ari dira ugaltzen nazioarteko komunitateak honi guztiari aurre egin eta bere agenda politikoan sartu behar duela eskatzen duten ahotsak. Gardentasuna behar dela, akordio berriak negoziatu behar direla teknologia honek planteatzen dituen erronkei aurre egiteko. Arma hipersonikoen gaineko kontrol neurriak eta proben moratoriak behar direla exijitzen dutenak. Baina, ikusiak ikusita, asmo oneko desioak baino ez dira, ez dute norgehiagoka hipersoniko beldurgarri hau etengo.



} iRRITZIA:



Alai
ZUBIMENDI

{



Juan Carlos RUIZ | FOKU

IKUSMIRA

TXALO JOTZEKO MODUKO ESFORTZUAK

Asteazkena, entrenamendu eguna. Biharamunean Kontxako Banderako sailkatze estropada jokatu zuten. 43 traineru ziren, emakumezkoen 20, inoizko kopururik handiena, eta gizonezkoen 23. Denak busti ziren, sailkapena lortzen ahalegintzeko, uretara sartu beharra daukate-eta. Denak busti baina 14 bakarrik sailkatu ziren Kontxako Banderarako. 14 bakarrik sailkatu baina denek ere esfortzu ikaragarria egin zuten. Esfortzu ikaragarria egingo dute sailkatutakoek

bihar ere. Esfortzu ikaragarria egiten dute urtean zehar, sailkatu zirenek eta kanpoan gelditu zirenek. Bihar sailkatuak ikusi eta txalo egingo dugu, eskuak goritzearaino. Hori eta gehiago ere merezi dute sailkatutako traineruetako arraunlariek, hori eta gehiago sailkatu ez zirenek ere. Ikusi ohi ez ditugun esfortzu handi asko, txalo jotzeko moduko esfortzu asko egiten baitituzte urtean zehar ere, itsasoan bezala lehorrean ere. Xabier Izaga

«G puntua» Biarritzen dago

Xabier Mikel
Errekondo

Satelite denek Biarritzerat izan dute jarria gezia. Herritar oro ere 7en mahaira begira egon gara. Eta ez da harritzekoa mundua 7en esku egonda eta Kasinoan lez tapete gainean herritarrok haien gose aseeginaren bazka bagina bezala garabiltzatela. Elkarren artean ere 7ak mokoka aritu dira errukirik gabeko oilar joko makabroan, nor herio, nor mendeko, nor gailendu. Gandor gorena duena da oilarretan oilarrena, esan gabe doa, Trump jauna.

Aitortu behar zaio Trumpi nazioarteko politika gezurti eta aspergarria hankaz gora jarri eta cayena piperminenez hautsez-

tatu izana. Gai da txio soil bat misil bilakatzeko, txio batekin mundua dantzan jartzeko. Txio batez misil baten punta sentitzea, hori boterea ez bada... Trump gorrotagarriaren tupeak *“me pone!”*.

Gailurra goia bada, kontragailurra behea da. Biak alderik alde, gainean eta azpian harremanetan Biarritzeko “G puntuan”. Hauxe bai errealitate politikoaren argazkia, eta, bitartean, Kontragailurra Gailurrari gailendu nahian, hots, azpian hartu eta gainetik jarri gailurreraino, klimaxeraino. Politikaren erotika ote saria iraultza egin (hobe esan, aldarrikatu) bitartean?

Bero egon da Biarritz, politikaren erotikaren gailurra, eta denetan beroena Oxford elkarte. Nonbait euskal kostaldeak liluratuta hanka bat Gailurrean eta bestea Kontragailurrean zangotrabatuta ibili da, gainean zein azpian. Nago hanka dantza hori ez dela “G puntuarekiko” maitasun gorroto harremana bilatzea, molde orotako sexu gordina baizik, Kamasutra bera...

“G puntua” Biarritzetik asteartean alden du zen arren, jendea hasia da estasiaren eraginak sentitzen, haien joko nagusia baita herritarrok izorratzea, jotzea, popatik tik-tik... Denbora kontua da zuki ere nabaritzea.. •

Uneak

Maider Iantzi
Goienetxe

Paradisua ongi dago... bulegoan edo fabrian zaudenean, edo kaleko obren zaratan. Ilusio gisa. Baina zer gertatzen da benetan paradisuan zaudenean? Nahi duzuna lortzen duzunean? Sagarrari ausikia. Gauza batek, edo pertsona batek, den ona izanda ere, neurritz kanpo betekadara eramaten zaituelako. Aspertzera. Bizigarria behar duzu.

Uneak dira. Batzuetan, dena bere lekuan jartzen da; edo kasik, beti dagoe-lako piezaren bat faltan, soberan edo

indarka sartua, baina puzzlea gutti gorabehera osatua ikusten duzu. Bertetan, beldurrak agertzen dira. Pentsamenduak maratoilari hutsak baitira, baita lo zaudenean ere. Oraintxe ondoran dituzu, gobernatuta, baina konturatu orduko lasterka ateratzen zaizkizu eta ezin izaten diezu jarraitu. Sarri sobera aitzineratzen zaizkizu eta alferrikako makina bat sufrimendu eragiten dizute.

Dena kontrolatu nahiak azkartzen dizkizu pentsamenduak, baina ezin duzu

dena kontrolatu, eta eskerrak. Horixe da bizigarria.

Uneak dira. Denetarikoa dituzu. Zain egotekoak, inizatiba hartzekoak, bertzei laguntzekoak eta mimatzen uztekoak. Saiatzekoak. Ekinaren ekinez lortu ezin nuela uste nuen zerbait lortu nueneko momentu hori etortzen zait burura. Bertetasun hori. Kideekin konpartituz eta nire buruarekin bakarrik ere ospatuz.

Garrantzitsua bidea dela ez da topiko bat. Energia positiboa transmititzen dizuten bidelagunekin, pasioz, aitzinera! •




Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Damak materia iluna argitzeko deman

zar talde batek erakusten zuen ezohiko higidura abiadura azaltzeko proposatu zuen Fritz Zwicky astronomo suitzarrak materia ilunaren existentzia 1930eko hamarkadan. Be-

hagarria den kosmosaren masa nahikoa ez eta ikusten ez dugun masa bat egon behar dela postulatu zuen horrela. Egun, behagarria den materia unibertsoaren %5 soilik dela uste da, beste %25 materia iluntzat eta gainerakoa energia iluntzat hartzen delarik. Guztiz ezezaguna zai- gun materia hori detektatzeko erron- ka zabalik da oraindik eta, gizon haren atzetik, damak izan dira dema horretan protagonista.

Texaseko Unibertsitateko (AEB) Katherine Freesek 1986an proposatu zuenez, Eguzkiaren inguruan egiten dugun translazioan materia ilun kan- titate eta fluxu ezberdinetatik igaro- tzen gara, eta aldaketa hori neurtze- ko gai izan beharko ginateke, nahiz eta oso zaila izan materia mota eze- zagun horren eta arruntaren artean ematen den elkarrekintza bestelako fenomenoetatik bereiztea. Freesek proposatu demari jarraiki, Erromako Unibertsitateko Rita Bernabei buru duen taldeak 1997tik darama Apeni- no italiarretan kilometro bateko sa- koneran aurkitzen den DAMA tresna- rekin lanean. 100 Kg sodio ioduroz osaturiko blokean, elkarrekintza ez- berdinak neurtu eta ekainero seinale berezi bat antzematen dute. Badirudi Lurra zonalde horretatik pasatzean elkarrekintza handiak ematen direla materia ilunarekin. Nolabait azaltze- arren, parabrisan zomorroak pilatzen zaizkion autoaren adibidea har deza- kegu: urtean zehar zomorroen nora- bide eta abiadura berean mugitzen ahal gara, talka gutxi emanez, baina ekain aldera badirudi parez pare to-



Materia ilunezko eraztun bat, galaxia multzo batean.

patzen ditugula, parabrisa zomorroz betetzen zaigularik.

Bernabeiren behaketek, baina, ez dute zientzia komunitatearen ezagu- tzarik momentuz, fenomenoak detek- tatzen dela hogeit urte pasa direnean ez baita DAMAren moduko seinalerik behatu antzerako beste esperimen- tuetan; ez Minnesotako (AEB) Soudan meatzean, ez eta Xenona darabilten Xenon 10 zein Xenon 100 tresnekin ere.

Ikerketa bide hori zabalik da eta gaur egun bi proiektu ari dira DA- MAren emaitzak frogatzeko datuak biltzen: 2017tik Canfrancen (Espai- nia) ANAIS proiektua eta 2016tik Hego Korean COSINE 100. Azken ho- rretan ari da lanean Reina Maruyama, Yale Unibertsitateko (AEB) ikerlaria. Bere esanetan, bi urte barru izango

dute datu nahikorik DAMAren emai- tzak berretsi edota gezurtatzeko, az- ken hori zailxeagoa bada ere. Lehe- nengo kasuan, hurrengo urratsak Hego Hemisferioan seinalea detekta- tu (Australian SABRE deritzana mar- txan da jada) eta materia ilunaren izaeran sakontzen hastea lirateke. Bi- garren kasuan, berriz, beste bide ba- tzuk esploratu beharko dira eta DA- MAk hogeit urtean eman seinalea berrinterpretatu.

Bide horretan, ez legoke soberan aurreko artikuluan aipatzen nuen Ka- meleoiaren Teoriaren antzerako alter- natibekin materia eta energia iluna- ren izaera bera zalantzan jartzen jarraitzea, berauen existentzia propo- satzera eraman gaituzten teoria gra- bitazionalei astindu bat emanez. Oxa- la dema horretan ere damak izatea aitzinean! •

{ datorrena } Iker Barandiaran

Jaiak bai, baina ez edonola

Badauzkat lagun batzuk areto eta gaztetxe-etatik kanpo kontzertuak ikustea maite ez dutenak. Ez dituzte jaialdi handi zein jaietako kontzertuak jasaten. Horiek ez dira musika taldeen eskaintzaz fundamentuz eta behar den bezala gozatzeko zuzenekoak, haien esanetan. Horregatik uko egiten diete irmotasun handiz modatik, parrandatik eta musikaz harago bestelako ezaugarrietatik ere zerbait baduten musika jaialdiei; eta, ondorioz, txanponaren beste aldean, tarteka, beste modu batean ikusi ezingo dituzten talde interesgarriak galtzen dituzte, baina beraien hautua da eta aurrera egiten dute horrekin.

Jaietako kontzertuei dagokienez, egia da ez direla musikaz gozatzeko testuinguru aproposena: programatzeko orduan bestelako arrazoiak egoten dira tartetan eta ordutegiak ere jasangaitzak izaten dira askotan; musikak jaitik eta ospakizunetik ere badu, eta jaiaren eta parrandaren testuinguruan bizi behar da halakoe-tan. Baina musikazaleak garenontzat uda sasoian ez da apenas beste aukerarik izaten, musikariak eta ikusleak gehiago mimatzen dituzten gaztetxe eta areto gehienek orduan ez dutelako programatzen. Horrela, bada, bali-teke gustuko taldea ordu txikietan kontzertuari axo-lagabe diren mozkorrez inguratuta ikusten ahalegin-du behar izatea; edo, esaterako, auzotarrek kantu-afariaren sobremesa noiz bukatu zain egon behar izatea ere. Biak ala biak, aurtengo adibideak dira, besterik gabe.

Baina aitortu behar dut, hala ere, jaietan auzoek zein herriek askotan gustu askoz hobea erakusten dutela programatzerako orduan, aurrekontu handiak eta turismoa –barnealde zein kanpokoa– jomuga duen Donostia gisako hiri txiki bezain handikiarekin alderatuta. Hain zuzen ere, Donostiako Udalak aurtengo Aste Nagusitarako prestatutako gauetako musika egitaraua lotsagarria izan da hitz xuabe bat erabiltzearen; eta espainola, zaharkitua eta gustu txarrekoa ere adjektibo gutxi batzuk erabilita.

Eskerrak aurtengo ere, kontrara, Donostiako Piratek alternatiba eskaintzeko ahalegin ederra egin dutela, nahiz eta niretzat aurtengo kartela ez den hain erakar-garria izan (gustuak gustu). Hala ere, Donostiak azken hamarkada luzean (gutxienez) bizi duen eraldaketa espekulatzaile beldurgarriari aurre egiten dio ausardiaz herritik sortutako ekimen honek eta meritu handia dauka, itzela. Oztopoz oztopo irmo jarrai dezatela!

Eta Piraten lan erraldoi eta jarrera horren erakusle izan da aurtengo jaietan egin dutena. Izan ere, guk ordaintzen ditugun erakundeek ez bezala, Piratek erantzukizun handiz lezio ederra eman dute pasa den Aste Nagusi honetan eraso sexualei planto egiteko Flamen-kako egun osoko egitaraua etenda. Jai gunean dauden pertsonen erdian segurtasuna bermatu ezin bada, ez dauka zentzurik ezer ospatu eta ekintzarik egiteak.

Sinesgaitza dirudi, baina oraindik ere sexu eraso ugari gertatzen ari dira eta horietako batzuk herri ekimenek sortutako jai esparruetan. Lan handia dugu hor egiteko,

Donostiak azken hamarkada luzean bizi duen eraldaketa espekulatzaile beldurgarriari aurre egiten diote ausardiaz Piratek eta meritu handia daukate, itzela.

badirudi azken hamarkadako lanak ez duela emaitzarik ematen, baina atzerapauso asko badaude ere, ezin dugu lortutakoa ahaztu. Horren erakusle da, esaterako, gaur egun gero eta halako eraso gehiago salatzen direla, hori da-eta pauso garrantzitsuena: halakorik erantzunik gabe ez uztea eta gizarteak, gutako edonork, horien aurrean irmo eta azkar erantzutea portaera horiek sustraitik edo errotik geldituz, salatuz eta erasotako pertsonari ahalik eta babes gehien ematen. Protokoloak badaude, jakitun gara, baina falta zaigu erasotakoari ezbairik gabe babesa ematea. Hori ez da hautu bat, hori egin behar-rekoa da, hori ezin da zalantzan jarri. Era berean, belaunaldi berriak ondo hezi behar dira guztion oinarritzko bizi-tza legea bermatzeko; hori gabe ez dago ezer. •

«Nire obrarik gehien-gehienak honela laburbil litezke: artea arteaz mintzo da»

Borgesen “El tango” poeman isolaturik azaleratzen den liparraren antzeria, «galduaren zaporea du, galduaren eta berreskuratuen zaporea» Javier Hernandez Landazabalek Artium Museoan ikusgai duen erakusketak. Zaporea ez ezik, izena ere poema horretatik hartu zuen artista gasteiztarak Daniel Castillejok komisariatu duen erakusketarako.

Urte askoan pinturan jardun ondoren, Hernandez Landazabalek koadrotan ez ezik, eskulturatan ere kontatzen ditu bere istorioak, kritikak, gogoetak: berreskuratutako materialez egindako zenbait tramankulu mihisean irudikatuta. Luze hitz egin dugu arteaz, oro har, eta bere obraz, arteaz mintzo den obraz, hain zuzen.

Borgesen «El tango» poemak abiatu du erakusketa.

Hiru dimentsioko aleak zaborregietatik hartutako materialekin eginda daude, eta “El tango”-ko korraleroen istorio horretan bezala, materialok behin jasota, istorio berri bat dute, beste ziklo bat aurrerantzean. Birziklapena da, nolabait, piezak berrerabili egiten direlako, baina kasu honetan funtzio jatorrizkoaren guztiz desberdin batekin. Inplizituki, birziklapenak dituen konnotazioak ditu, gehiegizko kontsumoaren eta planetaren suntsipenaren aurkako protesta. Esate baterako, objektuen zaharkitzeak, edo hobeto esanda, ez-zaharkitzeak, zerbait berria atera behar horrek, ondorio ikaragarriak dakartza planetarentzat. Zerbait berria erostea merkeago ateratzen

baitzaizu zaharra konpontzea baino, nahiz eta oraindik ondo funtzionatu. Protesta txiki hori erakusketa osoan dago presente, formalki behintzat.

Hori da erakusketaren ardatz bat, berreskuratutako objektuak. Bestalde batetik, hari gidaria objektu-irudikapena da. Azkenik, badago istorio paralelo bat, lan bat dagoen gune bakoitzean badago kontaketa txiki bat, kontaketa zabalago bateko atal bat. Kontaketa horrek existentziaz, heriotzaz, biziaren zentzuaz... dihardu, gizakiak betidanik, edo gutxienez zentzu pittin bat duenetik, bere buruari egin dizkion galdera gutxi gorabehera transzendentalak. Horiek dira hiru irakurketaratzak.

Istorio txiki horiek badute bata bestearik loturarik?

Bai, gutxi gorabehera batek beste batera igortzen zaituelako. El Boscoren erreferentzia egiten duen lan honek Dada mugimendura igortzen zaitu; postmodernitatea aipatzen duen beste horrek ere nolabait dadaismoa gogoraraziko dizu, postmodernitateak ere nolabait desengainua baitarama berekin. Jakina, dadaistek gutxienez, artetik behinik behin, zerbait aldatzen ere ahalegindu ziren, eta postmodernoek ez dute aldaketa egin edo gauzak iraultzeko ekarpenik egiten. Baina guztien arteko halakoa lotura dago.

Irudiak ez ezik, objektu erreala ere badago, eta aldi berean hori ere irudikapen bat da. Irudikapen jokoa, nolabait.

Bai, hortik doa ideia. Magrittek “*ceci n'est pas une pipe*” esatean esan nahi zuen bere

margolan hura ez zela pipa bat, pipa baten irudikapena baizik. Hori “errealista” hitzaren anbiguotasunaren harira dator; hitz hori pintore batzuk izendatzeko erabiltzen da, haien artean ni, eta are anbiguoagoa da hiperrealista hitza. Izan ere, ezin zorrotzagoa izanda ere, pintura irudikapena da beti. Ez da erreala; beraz, errealista delako hori, tira, izen bat jarri beharra dago, baina anbiguotasun handia izan dezake. Pinturan, behin koadro bat pintatzen hasita, subjektibitate handiak eta gogo-aldarteak ere parte hartzen dute, are, eskuaren dardara ere islatzen da; hortaz, ehuneko handian subjektibitatea duen zerbait da, ez dakit zenbatean. Ez da zerbait objektiboa. Eta zerbait objektiboa balitz ere, ez litzateke errealitatea, errealitatearen irudi bat baizik.

Eta norainoko garrantzia du irudiak?

Irudiaren garaian bizi gara, alde guztietan daude irudiak, hainbestearino non errealitatea eta irudia nahasten hasi diren. Esate baterako, jendeak telebista ikustean errealitatea ikusten ari dela uste du. Ez da konturatzen telebistan, zuzenean ematen ari badira ere, badela pertsona bat halako planoan hautatu eta zein gauza agertuko diren eta zein ez erabakitzen duena... eta hori jada ez da errealitatea. Telebistako albistegi bat aurkezten zuen tipo batek, Ernesto Saenz de Buruagak, beti esaten zuen esaldi hau saioa amaitzean: “*Así son las cosas y así se las hemos contado*». Hori gezur hutsa da, horretan ere engaitatzen zaituzte, pertsona hori paper bat antzeztan ari zen,

JAVIER HERNANDEZ LANDAZABAL

ARTISTA

Irailaren 15era arte du ikusgai Gasteizko Artium Museoan pintura eta eskultura uztartzen dituen erakusketa: «Galduaz eta berreskuratuz». Horretaz, bere ibilbideaz eta, oro har, arteaz hitz egin digu.

Xabier Izaga Gonzalez

kasu horretan gezurtiarena; hori ez zen errealtatea, hori eurek neurri handian edo txikian manipulatu zuten errealtatea zen, guri horixe zela sinetsarazteko.

Hori guztia nabarmentzen duzu erakusketan, ezta?

Bai, jada esan beharrik ere egon beharko ez bazen ere, jende guztiak jakin beharko bailuke koadro bat ez dela erreala, irudikapena baizik, eta telebista ez dela erreala. Hala ere, badago hedabideek sortzen duten errealtate paralelo hori errealtatea dela uste duen jendea. Telebista baino lehen ere, eztabaidaren bat sortzen zenean, zalantzak uxatzeko, horrela amaitzen zen: «Irratiak esan du». Edo «egunkarian irakurri dut». Baina momentu batean egunkariak ere gezurra esan dute, komatxo artean, ezta? Alegia, ikuspuntu desberdinak daude, kazetariak informazio bat emateko orduan beharbada saihe-tsezinak. Gaur egun gezurra kazetaritzaren adar bat bezala existitzen da, *fack news* ospetsuak. Trump, Putin eta jende horrek hainbat lagun kontratatuta dauzkate berriak asmatzeko. Hori izugarria da; lehen errealtate desobjektibizatua genuen, eta orain, pentsa!

Daniel Castillejok inaugurazioaren aurkezpenean esan zuenez, errealtatea odola da, gordina; irudikapena, berriz, katarsia. Biak nahastea deitoratu zuen.

Bai, Dani orduan nik dokumental baten eta *reality show* baten artean sumatzen dudana aldeaz ari zela uste dut. Lehenengoak baditu halako trinkotasuna eta sakontasuna; katarsia eragin edo gutxienez hausnarrarazi nahi du, eta *reality show*-ak ins-tintu makurrak eta barruan



Argazkiak: Jaizki FONTANEDA | FOKU

IBILBIDEA Nerabe zela, Gasteizko Arte Eskolan hasi zen pintatzen; ondoren, Arte Ederrak ikasi eta, aldi berean, irakasle ikasketak egin zituen. Arte diziplina gehientsuetatik pasatu ondoren, pintura izan du jardun nagusi urte askoan. Orain hiru dimentsioetara itzuli da, pintura utzi gabe, ordea.



daukagun narrasena piztu nahi ditu denbora-pasa hutseko ikuskizun bat emateko, maila pertsonalean ekarpenik bat ere egiten ez dizuna.

Eta zuri zer ekarpen egin dizu Castillejok?

Ekarpen handia. Ez da azaltzen erraza, baina ikusarazi dit... ez errealtatea, baizik errealtate horren irudikapena ikuspegi aberasgarriago batekin.

Erakusketa hau zure ibilbidean pauso bat baino gehiago da. Inflexio puntua?

Egia esan, aspaldi hasi nintzen tramankuluok egiten. Lehenak, oker ez banago, 1993 eta 1996 artekoak dira. Kontua da ez ditudala inoiz erakutsi, eta orain, obra osoarekin batera, esanahia hartzen dute. Erakuske-

tan eskulturak eta margolanak batera aurkezteko aukera izan dut, Danik erabaki hori hartzen lagunduta. Eta orain obrak batera ikustean, joko handia eman dezaketen elkarrekikotasunak eta erlazioak sortu dira. Ildo horretan izan daiteke inflexio puntua, beste norabide batzuen sorburu izan bailiteke. Momentu honetan ez dakit zein izan litezkeen bide horiek, baina ibilian joango dira sortzen.

Gaztetan «errespetu handiz» begiratzen zenion arteari.

Beldurrez begiratzen nion. Ur handiak ziren niretzat artista izatea. Akademia batera joaten nintzen eta Arte Ederrak ikasten hasteko azterketa baino hila-bete lehenago arte beldurra ematen zidan Arte Ederrak

egin nahi nituela esateak, niretzat zerbait helezina zela uste bainuen. Gero ez nuen arazorik izan, baina horrela ikusten nuen artea edo, beharbada, artistak. Baina gero mundu horretan sartu eta pixkanaka ikusten duzu inor ez dela hain helezina eta zu ere ez zarela pentsatzen zenuen hori.

Eta errespetuz ere begiratzen nion arteari, komatxo tartean, zeren erakusketa honetara, esaterako, hau txantxetako edo serioa den galdetu duen jendea etorri da. Biak batera ere izan daiteke. Ez dakit nork esan zuen gauzarik serioenak umoretik hartu beharra dagoela, eta uste dut kontua nolabait hortik doala, baina hori nire izaera da.

Zure obraren sailkapenean bada «metaartistika» izeneko


**atal bat. Hala ere, hari dago-
kion sasoian ez ezik, zure
ibilbide guztian zehar ere
hitz egin izan duzu arteaz.**

Bai, hori betidanik izan dut gustuko. Maiz galdetu izan diot neure buruari zergatik. Beharbada Arte Ederrak egin nituen aldi berean irakasle ikasketak egin nituelako? Bali-teke halako bulkada edo asmo didaktikoa izatea nonbait, ar-tea egitean arteaz hitz egitera bultzatzen nauena; nolabait artearen historia ere jendea-rengana oso modu irudika-tuan helaraztea gustatzen zait, oso modu subjektiboan. Baina bai, nire obrarik gehien-gehie-nak honela laburbil litezke: ar-tea arteaz mintzo da. Egileren bat, mugimenduren bat, artis-taren baten pasadizo bat aipa-tzen dute.

**Horiek iradokitzen dizkizute
artelanak?**

Nik obra bat egitea pentsatzen dudanean, senari jarraitzen diot. Egunkari batean edo libu-ru batean paragrafo bat iraku-rri eta halako pertsonaz pen-tsarazi didalako sor daiteke obra bat, edo poema baten egi-leak esaten zituen kontuez hausnartzera eraman nauela-ko, eta horrek beste gauza bat eta beste bat irakurtzera era-maten zaitu, eta guztiaren ar-tean halako nebulosa bat sor-tzen da, obrara doana, edo besterik gabe, zenbait gogoe-tatan geratzen da.

**Pintore hiperrealistatzat jo
izan zaituzte denbora askoan.** Horrekin amore emanda nago. Edonola ere, hiperrealismoa es-presionismo abstraktuaren guztizko subjektibotasunaren aurka sortu zen, baina baita da-daismoan aurrekariak dituen ondorio logiko gisa ere; hau da, objektu arrunta koadro batera-



ko elementu gisa aintzat har-tzen du, Duchampek beste arrazoi batzuegatik egin zuen bezala; pop arteak kontu herri-tarrak aldarrikatzen jarraitu zuen eta hor badago lotura bat, ikuspuntu horretatik behin-tzat, eta bazituen bere aurreka-riak, arteak beti izan dituen be-zala. Dada aipatuta, hark ere bazuen futuristekiko halako ze-rikusia, makinek eta diseinu-aren edertasunak erakarrita; ba-dakigu ondoren futuristek faxismora jo zutela politikari dagokionez, baina, arteari da-

*«Artea adarrez
beteta dago eta,
edozeinetatik
joanda ere,
aurrekariak ditu.
Ezer ez da
halabeharrez
sortzen. Bada
Eugenio d'Orsen
aipu bat: 'Tradizioa
ez den guztia
plagioa da'»*

gokionez, diseinuaren forma berriak aldarrikatzen zituzten, neurri batean Duchampen pi-xalekuan sumatzen dena, esate baterako.

Artea adarrez beteta dago eta, edozeinetatik joanda ere, aurrekariak ditu; atzera egin-da, hor dituzu dadaistak, in-kontzientea, barnekoa eta uste-kabekoa nabarmentzean, askoz lehenago ere bide horietan ara-katzen ibilitakorik bazela ikusi zuten; esate baterako, El Bosco. Hau da, ezer ez da halabeha-rrrez sortzen. Badago Eugenio

d'Orsen aipu bat: «Tradizioa ez den guztia plagioa da»; alegia, baten batek ezerezetik aterata-ko zerbait berriarekin badator-kizu, iturriak ukatu besterik ez du egin.

**Obrari, ondo egina egoteaz
gainera, hura justifikatzen
duen pentsamendu bat ere es-
katzen diozu.**

Bai, nik uste dut baietz; horrek ez du esan nahi, ordea, itxuraz pentsamendu bat ez duen arte guztiaren balioa ukatzen du-danik. Paisaia bat margotzen duenak ere, enkoadraketa bat aukeratzeagatik, koadroa kal-tetzen duen etxe bat edo zer-bait kentzeagatik, beharbada pentsamendu bat ez, baina errealitatea ikusteko modu bat utzi du, eta lehengora itzulita, errealitate horren irudikapen subjektibo bat egin du. Ados, ez dago pentsamendu aristo-teliko edo kontzeptual bat, baina bai hausnarketa bat iru-dikapen bat egiteko orduan. Argazkigintzan ere, zerbait oso objektibotzat jotzen den arren, argazkilariak enkoadratu egi-ten du, eta paisaiaren edo erai-kinaren parte bat eta ez bestea aukeratzen du. Hor ere badago gogoeta bat. Dei iezaiozu pen-tsamendua edo nahi duzun bezala, beti dago parte hartze subjektiboa.

**Zure koadro bat hormaren
kolorearekin ondo ematen
duelako erosi dutela jakinez
gero, zer esango zenuke?**

Niri ez didate inoiz eskatu koa-dro bat altzarien osagarri gisa. Edonola ere, tristeena ez da hori, baizik eta esku pribatue-tan amaitzea, inork obra hori berriro ikusiko ez duen le-kuan, liburu eta katalogoetan erreproduzituta ez badago. Horrek ez nau hainbeste nahi-gabetzen, obra bat erosten du-

telako, eta bizi egin behar da. Erosiko ahal dizkidate asko! Baina ez zait gustatzen obra bat pertsona baten lagunartean itxita geratzen delako. Onera jende guztiarengana iristea izango litzateke, museoentzat bakarrik lan egitea. Jakina, hori ezinezkoa da, orduan museo bana izan beharko baikenuke.

Artelanak zirrara eragin behar du?

Zirrara eragitea zailagoa da, baina teoriarik arteak eragin behar lukeen zerbait da. Artea dibertsifikatzen joan da, eta obra minimal batek zirrara eragitea zaila da, baina gogoeta eragin dezake, eta berdina balio du. Nik ikusten dudanez, zirrara obra mota zehatz batek eragin diezazuke, baina esandako moduan, obra minimal batek hausnarrarazi egingo dizu, eta hori nahikoa da. Arte kontzeptuala, azken buruan, horretan ahalegintzen da, katarsi moduko bat eragin eta gogoeta batera eramaten.

Eta gaur egun arteak zenbait ustezko premisa abandonatu ditu: obra batek ez du zertan ederra izan, denok buruan dugun edertasun kontzeptuaren arabera. Gaur egun artearen aukera bat berariaz zerbait ezatsegina egitea da, betiere halako sentsazioa eragiten bada, edo errefus bat, zuri barrena mugituko dizkizun zerbaitekin identifikatuko duzun errefusa.

Artea begiratzeko prestakuntza falta dela uste duzu?

Bai, erabat. Eskoletan irakurtzen irakasten den arren, alfabeto funtzionalak, irakurtzen jakinda ere testu bat interpretatzen ez dakitenak egonda, irudi bat irakurtzen irakasten ez bada, pentsa zer maila eskasetara iristen garen.

«Behin koadro bat pintatzen hasita, subjektibitate handiak eta gogoaldarteak ere parte hartze dute; horrenbestez, ez da zerbait objektiboa. Eta zerbait objektiboa balitz ere, ez litzateke errealitatea, errealitatearen irudi bat baizik»

Museo bateko koadro batek arreta jartzeko moduko hainbat gauza ditu; esaterako, teknikari edo konposizioari dago-kienez. Baina gero ondoan norbait entzuten duzu koadro horretan bere koinatuaren etxeko leihoa agertzen dela esaten... Tristeia da pertsona horien irakurketa horretara baino ez iristea, eta seguru pertsona bikainak direla, baina koadroa, beste gauza formal edo kontzeptual batzuei dago-kienez, zoragarria izan daiteke. Bai, irudiak irakurtzen irakastea falta da, eta tristeena da irudiaren aroan bizi garel.

Eta koinatuaren leihorik aipatu gabe, koadroa maiseatzen hasten badira?

Zuk esan dezakezu hau kaka-zahar hutsa da, baina jakin behar duzu hori arrazoitzen: honetatik eta besteetatik. Sarri entzuten dira «hau gure lau urteko haurrak egiten du» bezalakoak, ondo, ez diot ez duela egingo, baina azal iezadazu, esadazu, besterik ez bada ere, zergatik zure haurrak egin ahal izateak baliogabetzen duen obra hau, eta arrazoitzen badi-dazu, txapela kenduko dut.

Beste eremu askotan ere gertatzen da, literaturan...

Bai, jakina, baina literaturan, hain zuzen, jendeak gutxienez badaki irakurtzen. Jendeak ez daki irudia irakurtzen, eta irudien boterea ikaragarria da. Badakigu irudikapen orok en-

gainu pixka bat daukala, baina engainua zerbait maltzurra bezala ulertuta, ohikoa da; publizistek, kapitalismoaren adar intelektuala, badakite jendea nola engainatu. Eta lehengora itzuli gara, ez dute irudiak irakurtzen eta haiekin kritikoa izaten irakasten. Horregatik, telebistan iragarki bat ikusi eta ez dakit zer errimelekin begiak pintatzeagatik gizon guztiak atzean izango dituzu, edo gizonak, emakumeak, eta abar. Ez badakizu zer esalditxotan engainatu nahi duten zure inkontzientea segituan dendara jaits zaitezten, horretaz konturatzeko ez bazara, nolatan konturatuko zara gero erakusketa batean aurki daitezkeen mehetasunez?





Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Hobeto egin dezakegu, ezta?

Lagun batek mesede bat eskatu zidan. Mesedeak eskatze zalea ez da eta bane-kien benetan axola zitzaion zerbait ibiliko zuela buruan. “Hobeto egin dezakegu, ezta?” izenburudun zutabe bat zegoen atxikita bere mezuan, zakarrontzi baten irudiarekin, paperezko bi bola kanpoan eta bat barruan. Enpresa munduan ezberdintasun bat markatzea helburutzat duen emakume baten istorioa kontatzen zidan.

Gure bizitzetako ibilbideetan oso gutxitan aurkitzen ditugun emakume txundigarri batez ari zen hain zuzen ere. J-k garun paralisia dauka eta jaio-tzetik gorra da. Doktoretza eta bi karre-ra eginak ditu. BBC eta beste hedabide batzuetan kolaborazioak sarri egiten ditu. Hamaika sari jaso ditu bere ibilbide profesionalean zehar. Ezagutzen duen pertsona orok bere inteligentzia (biak, intelektuala eta emozionala) aipatzen ditu. Edozein enpresa bere atzetik ibiliko zela pentsatzeko adina ebidentzia dauka bere istorioak. Baina,


errealitatea bestelakoa da. 300 lanpostutara bidali du bere aplikazioa J-k (kasu guzti-guztietan eskatzen zituzten betebeharrekoen %90 betez). Hogei elkarrizketatara gonbidatu dute. Batzuetan hautaketa prozesuko lehenengo urratsa telefonoz delako. Hogei elkarrizketetan edozein deseroso sentitzea eragingo luketen aipuak eta aurreiritzi potolo eta baztertzaileak jasan behar izan ditu. “Aniztasuna bultzatzen dut eta inklusiboa naiz” tronpeta jotzen aritu ziren hainbaten ahotik noski.

**Nire lagunak bere LinkedIn sarean zitu-
tuen sei mila kontaktuetatik lau mi-
lari mezu pertsonalizatu bat idazteko
denbora hartu zuen.** Eskaera oso sin-
plea zen. J-k ireki ezin zituen ateak, be-
rari irekitzea. Logika guztia zuen egin
nahi zuenak: berak idatzi zien lau mila
pertsona horietako bakoitzak gutxie-
nez mila kontaktu berri izango zituen.
Beraz, ia milioika pertsonarengana iris-
teko potentzialaz ari zen. Eta, horietatik
guztietatik norbaitek izango zuela J-
rentzat lanpostu bat, edo proiektu bat,

hori zen bere hipotesia. Badakizue zen-
batek partekatu zuten denera zutabea?
Ehun eta berrogei pertsonak.

Horrek gogorarazi dit nire hogeit-
teko ibilbide profesionalean egin du-
dan hautamen prozesu eraginkor eta
aberasgarriena “hautaketa itsu” baten
bidez egindakoa izan zela; alegia, curri-
culumak ikusi gabe, proba bat jartzen
nien lanpostuan interesa zutenei; adi-
bidez, estrategiak garatzen zekien jen-
dea bilatzen banuen, galdera ireki bat
egiten nien: zein izango dira hamabost
urte barru ikus-entzunezkoen arloan
joerak eta eragile nagusiak eta zein bi
erabaki hartu beharko genituzke orain?
Ariketa horren emaitza ikusiz, haien
pentsatzeko modua ikus nezakeen, is-
torio koherente bat osatzeko zuten gai-
tasuna, arazo baten aurrean soluzioa
bilatzeko ahalmena, bisio bat zerotik
definitzeko perspektiba. Bi egun ema-
ten nizkien ariketa egiteko. Bi egun ho-
ri egiten pasatzeko denborarik ez zue-
na ez zitzaidan interesatzen. Aurretik
non lana egin zuen, zein ikasketa egin
zituen, nondik zetorren edo zenbat es-
perientzia zeukan bigarren mailako pa-
rametroak ziren. Prozesu “normal” ba-
tean lehen filtroa pasako ez zuten haiei
aukera ematen zitzaien. Pilotu moduko
baten markoan hori egiteko gai izan
nintzen, aniztasuna bermatzeko dina-
mika ezberdinen testuinguruan. Baina,
horretan gelditu zen. Pilotu batean.
Eta, zein da arrazoi nagusia? Orain ez
dela enpresak jarraitzen duen protoko-
lo “normala”. Lotsa sentitu dut.

**Bizitza, denbora (edo batzuek dioten
bezala, denbora gabezia) eta gure
ikusuntu berekoak bidean azaltzen
zaizkigu.** Hori da azalpena. Autodefi-
nitutako normaltasun horretan eroso
gabiltzalako. Baina, nire bulego aurre-
ko paretan hizki handiz idatzi dagoen
bezala, normala den gauza bakarra
arropa garbigailuaren zikloa da. •



Zein ote langileak hautatzeko protokolo «normala»?

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JESUS ELOSEGUI. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

EUSKAL ERREFUXIATUAK, 1939AN, VENEZUELARANTZ

1939ko ekainaren 25ean "Cuba" itsasontzia Le Havre-ko portutik abiatu zen Venezuelarantz. 82 euskal errefuxiatu zihoazen bertan. Agurra hunkigarria, "Agur Jaunak" kanta abestu baitzuten. Uztailaren 9an La Guaira-ko portura iritsi ziren, Caracastik 30 kilometrora. Venezuelako hedabideek argazki ugaritan jaso zuten gertakari hura. Euskal errefuxiatuak hara iritsita, lehenengo egunetan lore eskaintza bat egin zuten Simon Bolivarren gorpuzkiak gordetzen dituen panteoian. 1939ko uztailaren 28an, Le Havretik Venezuelarantzko bigarren espedizioa irten zen. 139 errefuxiatu ontziratu ziren "Flandre" ontzian, haien artean Eusebio Ibarrola ELAkoa eta Juan Olazabal EAJko kide nabarmena. Artikulua ilustratzen duen argazkiak "Flandre"-ren irteera islatzen du, eta haren egilea Jesus Elozegi tolosarra da. Venezuelarantzko hirugarren bidaia Bordeletik abiatu zen, "Bretagne" ontziak 59 euskal errefuxiatu zeramatzala. Talde haren arduraduna Francisco Elortegui izan zen, 36ko gerran Euzkadiko Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldeko komandante izan zena.

7^{haizetara}

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



MADAGASKAR

Kulturen bidegurutze paregabea

Mendeetan zehar marinel eta piraten babeslekua izan den Afrikako herrialde ederra, kulturen bidegurutze da. Xavier Aldekoa eta Alfons Rodriguez bidaiariekin sakon ezagutu ahal izango dugu.

Eta gainera: Stockholm, teilatutik teilatura • L'Alguer, Sardiniako hiri katalana • Everesteko trekkinga • Kyotoko Higashiyama auzo tradizionala

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^{haizetara}

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

